

0.IDEIA

Izan dugun ideia da zigarrokinak birziklatu eta haiekin paper birziklatua egitea. Gure helburu nagusia ingurumen-kutsadura murriztea eta espazio publikoak, bereziki parkeak, pasealekuak eta garraio publikoko geralekuak, garbiagoak egitea da.

Nahiz eta zigarro-muturrak oso txikiak izan, sortzen duten kutsadura handia da. Izan ere, urtero 4,5 bilioi zigarrokin botatzen dira mundu osoan, eta horietako asko kaleetan, parkeetan eta geltokietan amaitzen dira. Gainera, ikerketen arabera, zigarrokin bakar batek 40 eta 50 litro ur artean kutsatu ditzake, inguruko ekosistemak arriskuan jarritz.

Arazo honi aurre egiteko, GreenWoodek zigarrokinak biltzeko edukiontzi bereziak jarriko ditu garraio publikoko geralekuetan eta paseo-parkeetako gune estrategikoetan. Edukiontzi hauek gurpilez hornituta egongo dira, jasoketa-lanak errazteko eta bilketa-prozesua eraginkorragoa izan dadin.

Horrela, kutsadura-arazo erreal bati irtenbide praktiko eta jasangarria eskaini nahi diogu, ingurunea zainduz eta gizartearen kontzientzia handituz.



1.BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia gune publikoetan (parkeetan, autobus-geltokietan, pasealekuetan eta hondartzetako sarreretan) zigarro-muturrak biltzeko edukiontzi bereziak jartzea da, erretzea baimenduta dagoen espazioetan betiere. Bildutako muturrak tratatu eta paper birziklatu ekologiko bihurtzen dira. Helburua tokiko ingurunea garbi mantentzea eta hondakin kutsagarriak murriztea da, aldi berean produktu erabilgarri eta iraunkor bat sortuz.

Beste produktu antzekoetatik bereizten gaituena da ingurumena gehien kutsatzen duten hondakinetako bat berrerabiltzen dugula, eta horren bidez jendeak egunerokoan erabil dezakeen paper ekologikoa sortzen dugula. Paperak kolore eta diseinu pertsonalizagarriak izango ditu, bezeroek euren gustura moldatzeko aukera izan dezaten.

Gainera, edukiontzien diseinua erakargarria eta ikusgarria izango da, eta sentsibilizazio-mezu bat eramango du: “Kutsadura gutxiago, bizitza gehiago.” Mezu horren bidez, herritarrak hondakinak modu arduratsuan biltzera eta ingurunea zaintzera animatu nahi ditugu.

